



**EUSKAL
PERPAUSEN
DANTZA**

SARRERA

Norbaitek edo norbaitzuek esana da euskal idazleek ez dutela gramatikaren premiarik, gramatika-legeek idazlea lotu baizik ez dutela egiten; beraz, jaramonik egin ez eta kito. Nolabaiteko euskara egitea omen da kontua. Eskuetan duzun liburua (materialaren) egileak ez dira iritzi bereko. Izan ere, euskara jatorra eta aberatsagoa egiteko, badugu zer ikasi eta zertan geure buruak jantziago egin, eta erdal idazleek baino areago, nik uste. Egunotan askok ekin dio idazte lanari; baina presaka ibiltzeagatik edo, esaldi oso traketsuz betetzen dute beren lana, edo euskara lotuegia eta erdal kutsuz beteegia darabilte, gramatkarik ez jakinez.

Lino Akesolo PERPAUSEN ERABILERA

Lino Akesolok aipatutakoari lotuta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren azken zikloa gogoan, ikasleek ordura arte hitz egiten ikasitakoari gramatikaren oinarrizko arau batzuen ezagutza erantsi beharra aurreikusi dugu.

EUSKAL PERPAUSEN DANTZAN ez da perpausen azterketa sakona egiten, ez da hori gure xedea, perpausen erabileraren erakusketa baizik.

Horixe, beraz, gure helburu nagusia: euskal perpausak banan-banan hartu, hainbat testuingurutan kokatu eta erakutsi nola ahoskatzen eta idazten diren.

Bideo seriea egiterakoan euskal perpausen zenbait ezaugarri aukeratu, bakoitzarekin bizpahiru perpausa osatu eta denak fikziozko saio batean kokatu ditugu.

HELBURU OROKORRAK

- 1.- Ahozko eta idatzizko berbaldiak ulertzea, beren helburu desberdinak eta ekoizten diren komunikazio-egoerak antzemanaz.
- 2.- Ahoz zein idatziz esaldiak koherentziaz eta zuzentasunez adieraztea.
- 4.- Hizkuntzaren elementu formal eta mekanismoei buruz hausnartzea maila fonologiko, morfosintaktiko, lexiko-semantiko eta testualetan.

EBALUAZIORAKO IRIZPIDEAK

1.- Hizkuntzaren mekanismoei eta haien elementu formalei buruz hausnartzea, besteen testuak ulertzeko eta norberarenak gainbegiratu eta hobetzeko gai izatearren.

Irizpide honen helburua ikasleak elementu linguistikoek plano bakoitzean (testuingurukoan, testu-antolamendukoan eta morfosintak-tikoan) duten funtzionamendua kontuan hartzen duen ala ez jakitea da.

2.- Euskal Herrian euskalkien arteko ukipen fenomenoak identifikatzea, lokalizatzea eta deskribatzea.

Irizpidearen asmoa ikasleak Euskal Herrian hitz egiten diren euskalkiek duten tokia identifikatzen dituen ala ez egiaztatzea da.

EDUKIAK

Prozedurazko edukiei buruz, honako ideia hauek izan ditugu kontuan:

C) Multzoa: Ulermenean eta ekoizpenean eragina duten prozedurak

“Testuak, perpaus-sekuentziak, perpausak, talde sintaktikoak eta hitzak ezagutzea, idatzirik ikustea, ahoskatzea eta beste testuinguru batzuetan modu egokian erabiltzea.”

“Testua, perpaus-sekuentziak, perpausak, talde sintaktikoak eta hitzak konparatu eta sailkatzea, baliokidetasunak eta elementu bateragarriak identifikatu.”

Kontzeptuzko edukiei buruz, honako ideia hauek izan ditugu kontuan:

D) Multzoa: Morfosintaxia

“Perpaus bakun eta konposatua. Haien osagaiak.”

“Talde sintaktikoak. Osagaiak. kategoria gramatikalak.”

“Perpaus barruan eta perpausen arteko koordinazioa.”

Jarrerazko edukiei buruz, honako ideia hauek hartu ditugu kontuan:

B) Multzoa: Norberarenak eta besteen ekoizpenen aurreko jarrerak

“Hizkuntzari buruzko gogoetak norberaren ekoizpen linguistikoak arautzeko duen garrantzia balioestea.”

“Norberak idatzitako testuetan koherentziak, egokitasunak eta zuzentasunak duen garrantzia balioestea”.

“Norberaren eta besteen testuen koherentzia ezaren aurrean sentsibilitate kritikoa izatea.”

“Testu idatzietan arau morfosintaktiko, ortografiko eta testu aurkezpeneko arauak baloratzea.”

Zer da perpausa?

>Perpaus bakuna >Perpaus elkartua >Galdegaia

Juntadura bidezko perpausak -I-

>Alborakuntza: emendiozkoa, hautakaritzakoa, aurkaritzakoa, kausazkoa

Juntadura bidezko perpausak -II-

>Juntagailuak: emendiozkoak, hautakariak, aurkariak

Menderakuntza bidezko perpausak -I-

>Menderakuntza >Erlatiboak >perpausak

Menderakuntza bidezko perpausak -II-

>Perpaus osagarriak >Zehar-galdera

Menderakuntza bidezko perpausak -III-

>Kausazkoak >Kontsekutiboak

Menderakuntza bidezko perpausak -IV-

>Kontzesiboak >Konparaziozkoak

Menderakuntza bidezko perpausak -V-

>Baldintzazkoak >Helburuzkoak

Menderakuntza bidezko perpausak -VI-

>Moduzkoak

Menderakuntza bidezko perpausak -VII-

>Denborazkoak

Txertakuntza berezi bat

>Nominalizazioa (aditz-izena)

LG: VI - 52 / 05



Getaria, 18-behea

01010-Gasteiz

Tel: 945200608

E-mail: artez@ikusentzunezkoa.euskalnet.net

Ikasmaterialhonek
Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena du.

2005/03/14